

ALEGIAKO

ORRIE



2020KO OTSAILA • ARGITARATZAILEA: ALEGIAKO UDALA • DISEINUA ETA INPRIMAKETA: GARAIKO



4/5 NORBERAREN MESEDETAN, TALDEAREN BABESEAN

2/3

GAURKO
AHALEGINA,
ETORKIZUNĒKO
ONURA

6

LANGAUREN
ZUHAITZAK
ATERAKO DIRA

7

HILERRIKO
EGOKITZAPEN
LANAK

1936-1945
ERREKREAZIO
HISTORIKOA

8

IRAKURLE
TALDEAREN LEHEN
URRATSAK

Gaurko ahalegina, etorkizuneko onura

Alegiako Udalak inbertsioetarako nahiko lukeena baino baliabide gutxiago dituen aurrekontua prestatu du 2020 ekitaldirako. Oraingo ahaleginak etorkizunean herriari onura ekarriko dion itzaropena dute Udal arduradunek

Alegiako Udalak 2019ko abenduaren 19ko osoko bilkuran onartu zuen 2020ko ekitaldirako Udal aurrekontua. EH Bilduko bost zinegotzien aldeko botoak jaso zituen egitasmoak eta Aurrera Alegiako lau zinegotziak abstenitu egin ziren.

Aurrekontu egitasmoa osatzerako garaian, Alegia ardatz nagusi modura hartu da eta aurreko urteko datuak hartu dira oinarritzat. Diru sarrera posibleen eta egin daitezkeen gastuen zerrenda bat egitea izan zen lehen urratsa. 2020ko ekitaldiari begira,

Iraunkortasuna jomugatzat hartuta eta legezko gastu arauak errespetatuz, zuhurtziaz jokatzeari da 2020ko helburu nagusia.

aipatu diru sarrera horien igoera %1,3koa da 2019ko ekitaldiarekin alderatuta. Horrenbestean, Udalak, nahiko lukeena baino diru kopuru txikiagoa du egin nahiko lituzkeen inbertsioak gauzatu ahal izateko.

Legealdi berriko lehen urtea izaki, eraikin publikoen mantenura eta eraberritze lanetara dirua bideratzea



Eraikin publikoen mantenura eta eraberritze lanetara bideratuko da dirua.

da Udalaren asmoa. Inaxio Begiristain Kirol eta Kultur Etxea kokatzen den eraikinean eraberritze bat behar duten hainbat puntu identifikatu dira eta bertan garatzen diren jarduerak guztiak gutxieneko baldintzetan egin ahal izateko ezinbestekoa izango da hainbat lan egitea. Horrekin batera, Alegiako Herri Eskolako eta Aralar Institutuko eraikinean hainbat konponketa lan ere egin beharko dira, 2019ko Jasangarritasun Energetikoaren lege berriak datozen urteei begira eskatzen dituen eskakizunak betetzen

joateko. Hori guztia, beti ere, ohiko mantentze eta hornikuntza lanak albo batera utzi gabe.

Aurreko urteetan zehar Udaleko aholkulari teknikoek garatu dituzten egitasmo ezberdinei ere probetxua atera nahi zaie ahal den neurrian 2020an. Eginda dauden aurreproiektuak oinarritzko proiektu bihurtu eta dauden lehentasunen eta baliabideen arabera, egitasmo horiek gauzatzeari da Udalaren helburua. Proiektu horietatik zein eta zenbat

Jasangarritasun energetikoaren legearen erronkak

gauzatuko diren jakin ahal izateko, funtsezkoa izango da zenbat eta zein motako diru laguntzak lortzen diren ezagutzea.

Aurrekoarekin lotuta, Alegiako Hiri Antolamendu Plan Orokorrari ere egin nahi zaio aipamena. Berau garatzeak suposatzen duen lana kontuan izanda hainbat herrik albo batera utzia duten arren, Alegiak plan horren gauzatze bidean urratsak ematen jarraitzen du. Aurreko legegintzaldietan egindako lanak ahalbidetu du hasierako behin behineko onarpena lortzea, pasa beharreko izapide guztiak pasa ostean. Hori da nagusiki Udala egitasmo horrekin aurrera egitea bultzatzen duen indarguneetako bat. Aurretik egindako lan horrek bukaerako emaitzak ikustetik gero eta gertuago jartzen du herria eta herritarrek nekez ulertuko lukete horrelako proiektu bat amaitu gabe uztea. Etorkizunean Alegiari onura oso interesgarriak ekarriko dizkion proiektua da HAPOrena. Bide batez, gogorarazten da onartutako dokumentu hori herritarren eskura dagoela Udal webgunean euskarri digitalean eta Udal bulegoetan paperean.

Gauzak horrela, Udalak egitasmo hauen garapenera bideratuko duen dirua, etorkizunean aurreztea ahalbidetuko duen gastua da. Iraunkortasuna jomuga nagusi modura hartuta eta legezko gastu arauak errespetatuz, zuhurtziaz jokatzeko da 2020ko helburu nagusia, justizia soziala bermatuz. Etorkizunean urte aberatsagoak etorriko direnaren itxaropena du Udalak herritarren oinarritzko behar guztiak, gizarte laguntza kasu, betetzea lehentasun modura hartuta, beste zerbitzuak mantenduz eta zabalduz.

Herritarrek Udaleko webgunean eskura dute 2020ko Udal aurrekontuaren dokumentua modu digitalean kontsultatzeko eta hala nahiko luketenez, Udal bulegoetan paperean kontsultatu dezakete astelehenetik ostiralera 9:00etatik 14:00etara.



2019ko Jasangarritasun Energetikoaren legeak agintzen dituen lan batzuk aurreko legealdian egin baziren ere, oraindik ere bada egitekorik alor horretan. Azterketa lanak, beste energetarako trantsizio egutegia, eraikin publikoen ziurtagiri energetikoak, auditoriak, mugikortasun ebaluaketak eta beste hainbat gauza dira legearen eskakizun guztiak betetzeko datozen urteetan gauzatu beharko direnak. Legeak ezartzen dituen epeek markatuko dute neurri handi batean lan horien gauzatze hurrenkera, baina garbi dago epe horiek bete beharra dagoela kontsumo gizartekoiagoarekin batera, aldaketa klimatikoari aurre egiteko. Eta aurrekontuarekin lotuta, burujabetzak suposatuko duen aurrezpena oso garrantzitsua da zentzu guztietan.

Astelehenero eta asteazkenero adineko dozenatik gorako emakume talde bat elkartzen da bi orduz Jubilatuen elkartearen, ariketa ezberdinen bidez memoria landu eta pertsona horiek dituzten beste behar batzuk asetzeko helburuarekin

Saioa amaitzeko berrogei minutu falta dira eta tailerreko partaideak, emakumezkoak denak, lau taldetxotan banatuta ari dira Tamara Del Orden irakasleak emandako ariketa egiten. Hamalau partaide daude, lauko bi mahaitan eta hiruko beste bitan banatuta. «Gaur batzuk ez dira etorri eta horregatik gaude gutxiago; bakoitzak bere talde finkoa du eta beti leku berean esertzen gara» adierazi du tailerreko partaide batek. Elkarren artean zuzenketak egiten dituzte, laguntza eskatzen duenari eman egiten zaio eta bada ariketa egiten asmatu ez duelako bere buruarekin haserrealdi txikiren bat izan duenik ere. Arbelean lotura familiarren arabera familiako kide bakoitzak hartzen duen izenen inguruko ariketa bat dago idatzita. Partaideek izen horiek asmatu behar dituzte eta irakasleak ondoren beraien familietako kide horien izenak gogoratzen ote dituzten galdetu die.



Psikoestimulazio tailerra «Oso lagungarri suertatzen zaigu»

Udaleko gizarte zerbitzuen ekimenez, gaur egun Lahar elkargoak eskaintzen du adineko pertsoneri zuzenduta dagoen Psikoestimulazio tailerra. 2015eko abenduan jarri zen martxan eta harrezkero, ikasturte guztietan eskaini izan da, irailetik ekainera bitartean. Astelehenetan eta asteazkenean elkartzen dira Jubilatuen elkartearen 16:00etatik 18:00etara.

Tailerrek helburu ezberdinak dituela dio Del Ordenek. «Saio hauetan nagusiki memoria lantzen dela pentsatzen da eta hori hala da. Dena den, saio hauetara etortzen direnek, memoria lantzeaz gain beste behar batzuk ere badituzte eta horiek guztiak betetzen ahalegintzen gara». Beste behar horien artean, afektiboei egin die erreferentzia. «Pertsona hauetako asko bakarrik bizi dira eta etxetik atera eta beste pertsonekin harremanak izateko oso ondo etortzen zaie horrelako tailerretan parte hartzea. Nolabait esateko, harremanak izanez eta jarduera ezberdinak egiteko gai direla ikustarazita, pertsona horiek beteta sentitzen dira».

Saioko hainbat unetan parte hartzaileak “zirikatzen” ahalegintzen da irakaslea. «Beraien erreakzioak probokatzen ahalegintzen gara. Ezusteko galderak egiten dizkiegu, beraiek azkar erreakzionatu eta erantzun dezaten» dio Del Ordenek. Parte hartzaileek gustuko dute hori. «Ez-

tean egiten dizkigun galderei askotan ezusteko erantzunak ematen dizkiegu eta gero barre egiten dugu».

Tailerreko atea zabalik daude bertan parte hartu nahi duten adineko guztientzat. Saio batera agertzea nahikoa da zer egiten den ikusteko eta gustukoa suertatzen bada, handik aurrerako saioetara joatea besterik ez dago. Parte hartzaileak saiatzen dira kide berriak erakartzen. «Inguruko jendea-ri aipatu izan diogu zer nolako gauzak egiten ditugun eta gomendatzen diegu etortzea, lagungarri suertatzen delako». Hainbat kasutan, tailerlean parte ez hartzearen arrazoi bat bertan egiten diren ariketan egiteko gai ez izateak eragiten duen lotsa dela uste dutela adierazi dute.

Horren aurrean, Del Ordenek argi azaldu du ariketak saioko kide guztien mailara egokitzen direla. «Normalean saio gehienetara etortzen diren guzti-ekin ariketa berdinak egiten ditugu. Dena den, gertatu izan da arrazoi ezberdinengatik partaideren bat aste batzutan ez etortzea. Kasu horietan, saioetara itzultzen denean, beste ki-deen erritmoa jarraitu ezin badu, be- rari egokitutako ariketak jartzen zaiz- kio».

Errutina finkorik ez izatea eta bat- batekotasuna ere badira Psikoesti- mulazio tailerraren ezaugarrietako batzuk. Partaideen jarrera aktiboa



mantentze aldera, irakasleak egun ba- tetik bestera ariketak egiteko modua aldatu dezake edo ezustean ezohiko jarduera bat egitea proposatu. Adibi- dez, diktaketak egiten dituztenenean, normalean egin ostean zuzendu egi- ten dituzte baina egun batean irakas- leak esan dezake diktaketa amaitu ostean ez dutela zuzenduko eta beste zerbait egingo dutela.

Saioa amaitu ostean partaide gehie- nak bertan geratu dira eta adineko beste pertsona batzuk sartu dira Ju- bilatuen elkartera. Kafesne edo infu- sio baten bueltan karta jokoan geratu dira, aurreko bi ordutan izan duten ikastaroari jarri dioten arreta berare- kin.

Lagaurren zuhaitzak aterako dituzte

2020a hastearekin batera, Aldaba Txiki mendiko Mareako (Madariaga) eremuko larre ustiaketa beste urtebeterako berritu da, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin sinatutako hitzarmenari datorren urtera bitartean jarraipena emanez. Une horretan, Aldundiaren oniritzia beharko da larre horien erabilpena berrikusteko eta zehazteko

Pasa den udazkenean, Udaleko ingurumen teknikariak egindako txosten bat igorri zen Aldundira, aipatu eremuko zuhaitzen erorketaren inguruan, arriskua sortu zezaketen zuhaitzen kokapen geolokalizatu eta guzti. Udala, Aldundia eta basozainak Lagaurren bildu ziren eta ingurua bisitatu ostean, azken horiek eremu horretarako zuten plana aurkeztu zuten, aurreikusitakoa baino zaindu beharreko zuhaitz gehiago topatu ostean.



Horrela markatuta dauden zuhaitzak aterako dira Lagaurren.

Herritarren eskaera batetik eratorriak diren lan horien helburua, atsedenekuko erabiltzaileen segurtasuna bermatzea da

Hainbat ildo zehaztu ziren. 2019a amaitzerako bide nagusiak garbitu dira makina bat erabiliz eta 2020aren hasieran, osasuntsu dauden hainbat zuhaitzen adar batzuk moztuko dira. Horretarako, azken asteetan hainbat zuhaitz berdez markatu dira eta pintaketa horiek zuhaitzak identifikatzeko dira. Udaberrian gaixotasun ezberdinen eraginpean dauden hainbat zuhaitz botatzea

aurreikusten da. Zuhaitz horietako batzuk ustelduta edo lehortuta daude eta beste batzuk har edo zomorro ezberdinek eragindako gaixotasunak jota daude.

Lan horien helburua, atsedenekuko erabiltzaileen segurtasuna bermatzea da. Herritarren eskaera batetik abiatuta, Foru Aldundiaren ardura da zer, noiz eta nola egin erabakitzea.

Herritarrek eta kanpotik datozenek inguruaz ahalik eta gehien gozatu ahal izateko, guztion ardura da eremua zaintzea eta zainduaraztea. Erabiltzeko eskubidea dugun neurri berean, zaintzeko ardura ere gurea da. Zentzu horretan, zerbait hondatuta, hautsita edo egoera arriskutsuan ikusten bada, Udalari jakinaraztea eskertuko da, ahalik eta lasterren konpontzeko.

Hilerriko egokitzapen lanak

Udala herriko hainbat familiarekin harremanetan jarri da gutun bidez hilobietan dauden gorpuzkiekin zer egin erabakitzeko



Familiei erabakia patxadaz hausnartzeko tartea utzi nahi die Udalak.

Azken boladan ugaritu egin dira lur mugimenduak Alegiako hilerriaren inguruan. Hori dela eta, Udalak epe laburrean hilerriaren beheko aldean geratzen den lursaila egonkortzeko lanak egin beharko ditu. Horretarako egoeraren azterketa bat egin da eta lan horiek gauzatu aurretik, hainbat hilobi husteko edo egun dauden lekutik beste batera mugitzeko beharra ikusi da. Horrek lurpean hilobiratuta dauden gorpuzkiei eragiten die modu zuzenean.

Gabonen aurretik Udalak hainbat gutun bidali zizkien aipatu hilobietan lurperatuta daudenen sendiei. Gutun horietan, gorpuzkiekin zer egin erabakitzea eskatzen zitzaaien familiei, eskaintzen ziren aukeren artean. Hainbaten erantzunak jaso dira baina oraindik beste hainbatek ez du erantzun eta Udalari ezinbestekoa zaio jakitea ea zenbat diren hezurak edo erraustak hilerrian bertan mantentzeko hautua egin duten familiak.

Udalak badaki patxadaz hausnartzeko erabakia dela eta azkar egin beharzagatik erabaki okerren bat hartzea ekidin nahi da. Kutsu sentikor handiko gaiak dira eta garrantzitsua da erabakia behar besteko soseguz hartzea. Behin erabaki beharrekoak lotuta, egin beharreko lanak errespetuz eta borondatez burutzea da helburua.

1936-1945 Errekreazio historikoa

Iñigo Gastesi aktorea buru duen proiektua gauzatzeko ezinbestekoa izango da herriko talde zein norbanakoen parte hartzea



1936-1945 garaira atzera egingo da ekainaren 14an.

Alegiako Kultura batzordeak 'Alegia 1936-1945' errekreazio historikoa aurkeztu zuen iragan urtarrilaren 27an. Jatorri alegiarra duen Iñigo Gastesi aktoreak gidatzen duen proiektua da eta izenburuan aipatzen den garaiko errekreazio bat egin nahi da, herriko talde eta norbanakoen parte hartzearekin.

Errekreazioak hiru pasarte nagusi izango ditu eta ekainaren 14ean, igandea, egitea da asmoa. Jai giroan dagoen herri bat irudikatuko da hasieran eta militarren iritsierak guztia trakestuko du garaian egin ziren bidegabekeria ugari azalerratz kokagune ezberdinetan.

Egitasmoaren arduradunek herritarren parte hartzea sustatu nahi dute eta interesa izan dezaketen alegiarrek datozen asteetan izango dute proiektuaren hurrengo urratsen berri.

8

Neguko Kultur Egitaraua

Urtariletik abian den neguko kultur egitarauak aurrera jarraitzen du. Datozen asteetan ondoko hitzorduak izango dira

Otsailak 13, osteguna

Ipuin kontaketa: Lur Usabiaga.
17:00tan liburutegian.

Otsailak 14, ostirala

Antzerkia: "Erradikalak ginen".
22:00etan Elizpe zinean.

Otsailak 23, igandea

Iñauterietako zahagiardoa plazan.

Martxoak 6, ostirala

Kontzertua: "Amak".
22:00etan Elizpe Zinean.

Martxoak 8, larunbata

Emakumeen Nazioarteko Eguna.

Martxoak 11, asteazkena

Hitzaldia:
"Plastikorik sortu gabe nola bizi".
Maddalen Diazen eskutik.
18:00etan kultur etxeko batzar aretoan.

Martxoak 18, asteazkena

Ipuin kontaketa: Xabier Terrones.
17:00etan liburutegian.

Martxoak 27, ostirala

"Raketistak lehen eta orain"
dokumentalaren proiektzioa eta mahai ingurua.
22:00etan Elizpe zinean.

Martxoak 29, igandea

Mendi irteera: Aralarko Guardetxetik Larraitzera.
Mendi asanbladak antolatuta.

Apirilak 3, ostirala

Sutarri dantza taldearen emanaldia.
22:00etan Elizpe zinean.

Irakurle taldearen lehen urratsak

Herritar talde baten ekimenez sortu den taldeak maitzera bitartean izango ditu lehen bi saioak. Martxoaren 12an Alberto Ladrón Aranaren *'Piztiaren begiak'* liburua izango dute aztergai eta maiatzaren 21ean Amets Arzallusen *'Miñan'*

Alegiako Irakurle Taldearen sorrera ekarri du 2020aren hasierak. Herritar talde baten ekimenez Kultura batzordean proposaturiko egitasmoa izan da eta halako jardura batean interesatuta leudekeen herritarrentzat bilera informatibo bat egin ostean, taldea gorpuztu eta martxoan eta maiatzean lehen bi solasaldiak egitea adostu da.

Martxoaren 12an eta maiatzaren 21ean izango dira lehen bi saio horiek. Martxoko solasaldian Alberto Ladrón Aranak 2012an kaleratutako *Piztiaren begiak* eleberriaren inguruan ariko dira. Maiatzeko saioari begira berriz, Amets Arzallusen *Miñan* liburua landuko dute. Ehun ta Hamaika akademiako koordinatzailea den Amaia Goikoetxea alegiarra izango da irakurle taldeko saioetako dinamizatzailea.

Irakurle taldea sortzeko lehen bilerara joan izan ezin baina proiektuan interesa duten herritarrentzat atek zabalik daude. Publiko egin diren lehen bi saio horietakoren batera joatea da irakurle taldean sartzeko eskakizun bakarra, beti ere, hitzordu bakoitzerako aukeratu den liburua irakurrita, noski. Edonola ere, solasaldien aurretik egitasmoaren inguruko informazio gehiago nahiko lukeen norbait balego, kultur etxera jo dezake eta bertan jaso ahal izango du.

